



Juan
Iturralde
Suit

1840-1909

BIDeGILEAK

Egilea:

Rosa Miren Pagola



JUAN ITURRALDE SUIT

(1840-1909)

Iruindar ospetsua

Nafarroaren historian, Erdi Arotik hasita, ez da falta izan gizon-emakume ospetsurik eta handirik nahiz zientzia eta letretan, nahiz arte munduan, nahiz zeinahi arlotan. Horietarik aunitz erlijiosoak izan ziren, baina jende zibila ere bai tarteka, azkenaldiko bi mendeetan batez ere. Nafarrak izanik, euskaldunak eta euskaltzaleak zirenak ez ziren gutxi. Baina, gauzek beren bilakabidea izaten baitute, XIX. mendearen erdialdetik aurrera indartu zen euskararen kontzientzia, eta orduantxe sortu zen, ia batera, inoizko giza talde-

rik ugariena, kultura gaietan entzute handikoa izango zena eta euskararen egoeraren kezka bizia izan zuena. Gogoz ekin zioten euskararen eta euskal kulturaren alde, eta beraiei esker suspertu zen biziki Nafarroan euskararekiko harrotasuna, hain izan zen bikaina egin zuten lana euskararen izena eta duintasuna jasotzen. Hona ezagunagoak diren izen batzuk: Arturo Campion, Hermilio de Oloriz, Estanislao de Aranzadi, Francisco Navarro Villoslada, eta baita argi bereziz distiratu zuen Juan Iturralde Suit ere.



Iruñea Juan Iturralde jaio zen garaian

GARAI ISTILUTSUAK

Juan Iturralde Suit Iribarne Arranbide Iruñean, Nafarroako hiriburuan, jaio zen 1840ko urriaren 23an. Katedralean bertan kokatzen zen San Juan Bautista izeneko parrokiari, Iruñeak izan zuen lehenengoan, bataiatu zuten. Bazuen, nonbait, nobleziarekin loturarik eta Juan Pedro Pascual Sebastian Cesar izen anizkoitza ipini zioten. Bikarioari, hainbeste izen idatzi beharrez edo Bataio liburuan, ahaztu egin omen zitzaion lehenengo idaztea, Juan, aitona zena. Hamahiru urte geroago ohartu bide ziren, eta le-

erro gainean sartu behar izan zen zuzenketa. Aitareneko aldeko familia osoa, aita, Tomas, eta aitona-amonak, Juan eta Dominica, Bankan jaioak eta bizitakoak ziren. Ama, Maria Antonia, Iruñean jaioa zen, baina bere gurasoak, aita, Pedro, Zuberoako barkoxtarra eta ama, Maria, Aldudekoa, Nafarroa Beherean. Aita-ponteko amareneko aldeko osaba izan zuen, Sebastian Suit, Madrilen bizi zena. Lau urte beranduago arreba bat izan zuen, Filomena Dominica Matilde Antera izena eman ziotena.

Garai hartan, Iruñeak Erdi Arotik zetorkion hiri-egitura bera zuen, harresiz inguratua aurkitzen baitzen. Jendeak gero eta estutasun itoagoa sentitzen zuen harresiek ezartzen zituzten mugen barruan. Izan ere, biztanleria gehitzen zihoan neurrian, eraikin berrien beharra handiagoa zen eta etxeak egiteko leku falta nabarmenagoa. Garbitasuna eta higiena zaintzea ere gero eta zailagoa zen, osasuna bera arriskutan jartzeraino. Bizi zuten egoera larri hartatik atera ahal izateko, XIX. mendearen erdialdera harresiak eraitsi nahi izan ziren, eta hori eskatu zitzaion armadari,

baina ez zen baimenik lortu. Dena den, Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz, lasaialditxo bat hartzeko aukera egokitu zitzaion, erlijiosoei kendutako lurretan etxe berriak eraiki baitziren.

Mendearen bukaera aldera, 1884. urtean, bi bastioi botatzeko baimena lortu zen eta horrela hasi zen Iruñeko Lehenengo Zabalgunea garatzen. Harresiak botatzearen aurka agertuko zen Juan Iturralde. Iruñearen hazkundeari irtenbidea eman behar zitzaion, noski, baina harresiak lurreratu gabe esaten zuen, Iruñean ere atzerriko beste hiri batzuen jokabide eta ereduari eutsi behar zitzaiola defendatuz.


Edonola ere, Juan Iturralde oso une seinatuan etorri zen mundura, Lehen Karlistada bukatu zen urtean, hain zuzen. Eta hurrengoan, 1841ean, gerraren ondorioz, «Nafarroako Lege Paktatua» izenez ezaguna den legea jarri zen indarrean. Horrekin Nafarroako lurraldea, artean Erresuma zena, probintzia huts bihurtu zen eta Erresumak bereak zituen eskubideak galdu zituen. Besteak beste eta zehaztuz, galdu zituen: Gorteak, Errege Kontseilua,



Iruñeko katedraleko San Juan Bataiatzailearen parrokiak bataiatu zuten



XIX. mendearen erdian, Iruñea oraindik harresiek inguratu egiten zuten



Jaiotza-liburuko J. Iturralderen erregistroa

Aduana, diru-txanpona egiteko eskubidea, legegintza eta epailetza eskukotasunak eta Estatuari zuzeneko zerga ordaindu beharra, garai hartan 1.800.000 errealetan gauzatua; bestalde, derrigorrezko soldadutza inposatu zitzaion, ordura arte libre ziren gazteak soldadutza egitera behartuz. Horregatik esaten da Juan Iturralde Nafarroako Erresuman jaio zen azkenetariko bat izan zela.

Hurrengo urteak ere hagitz korapilatsuak izan ziren politika mailan: bigarren Karlistadaren garaian, Euskal Herriko hegoaldeko beste lurraldeei oinarrizko eskubideak ukatu zitzaizkien eta lurralde horien eta, bereziki, foruen aurka Madrildik bultzatu zen kanpaina izugarria izan zen. Horiek guztiek Iruñean ere giro


atsekabetsua sortu zuten, eta Juan Iturraldek bere haurtzaroko urteetan ezagutu ez ezik, bere barnean gordeko zituen gertakizun horiek, eta aski gazterik agertuko zuen jarreran eragina izango zuten.

IKASKETAK ETA FORMAZIOA

Posizio oneko familian jaio zen, jatorri noblekoan, erran den bezala. Bere aita, On Tomas, banku-etxeko zuzendaria izan zen, Banco de Pamplona deitzen zenekoa lehenengo, eta hau Iruñeko Banco de Españañaren sukurtsal bihurtu zenean, honetako ondoren. Juanek haurtzaroa Iruñean igaro zuen eta bertan jarraitu zuen batxilergoa bukatu arte. Mutil argia eta trebea izaki, Bartzelonara joan zen ingeniarietza ikasketak egitera, baina bertan behera utzi behar izan zituen ikasketak osasun arazoak zirela eta. Izan ere, karrera hasi eta laster, bihotzean ahultasunen bat hauteman zioten eta medikuek hain ikasketa gogorrekin jarraitzea ez zuela on adierazi eta gomendatu zioten. Horrela bada, aitaren aholkuz eta haren bidea hartzeko asmoz, bere lanbide profila osatzeko merkataritza ikasketak egitera Bordeleko Merkataritza Eskolara

joan zen. Aisa eraman zuen hango egonaldia eta lana, ikasketen amaieran ematen zen sari bakarra berak lortu baitzuen.

Ongi prestatua zegoen, beraz, Juan gaztea, Iruñera bueltatu ondoren aitaren bide beretik abiatzeko, banketxe baten erantzukizuna bere gain hartzeko eta, horrekin batera, ekonomia eta finantza saileko beste eginkizunetan jarduteko. Baina ez zuen, nonbait, bere burua lanbide horretan laketuko zenik uste. Beste kezka eta egonezin batzuk zerabiltzan bere baitan eta ez zen oso kontent beretzat aurreikusia zuten bidearekin. Izan ere, alde batetik marrazkirako esku ona agertzen zuen eta artearen xuxurla goxoa sumatzen zuen barnean; bestetik, intelektualki prestakuntza sakonagoaren beharra sentitzen zuen. Etxekoek ongi ulertu zuten Juan beste zerbaiten egarriz zebilela eta ez zuten batera arazorik izan hartu nahi zuen bidea egiten laguntzeko. Non presta zitekeen artistikoki, garai hartan, Parisen baino hobeki? Aitak aipu handiko pintore bati zuzendutako gutun bat berekin zeramala, hara joan zen. Ez zen laburra izan han eman zuen denbora marrazketa eta pintu-



Parisen ikasi zuen marrazten eta pintatzen

ra ikasten eta, horrez gain, kultura arloan ere bere burua aberasteko aukera ongi aprobetxatu zuen. Eragin handia izango zuen Iturralderegan Parisko egonaldi horrek, ez baita ahantzi behar XIX. mendaren bigarren erdian arte ederretan egundainoko iraultza borborka hasia zela. Iturralderi Erromantizismoaren eragina barreneraino sartu zitzaion eta beti agertuko du bai lanetan, bai bizitzan.

IRUÑEKO GIZARTEAN MURGILDUA

Parisen gustura aurkitu arren, Juan Iturralde ezin izango zion sortetxearen eta bere herriaren deiari luzaro entzungor egin; beraz, Iruñera itzultzeko erabakia hartu zuen. Paristik bueltatu zenean, garaiko iturriek diotenez, gazte lerdin eta irudi ederrekoa ei zen eta, izaeraz, xarma handikoa,



Iruñeko Udaleko zinegotzia izan zen

alaia eta txantxazalea; eta etxe onekoa ere bai, bestalde. Bazen gazte talde bat, denak iruindarrak eta, adinari berea emanez, umore onekoak eta jairako beti prest zirenak. Eragina izan zuten Iruñeko garai hartan, batez ere gazteentzat sortu zuten eta ospe handia lortuko zuen La Constancia kasinoaren bitartez. Juan Iturralde nabarmentzen zen bereziki: festen animatzaile ona zen, eta Iruñean gertatzen ziren xelebrekeriak marrazki eta karikatura sinpatiko eta txairoez kritikatzin eta parodiatzen zituen.

Beraz, ezaguna egin zen Juan Iturralde Iruñeko gizartean, maila guztietako jendearen artean. Izen ona zuen, gazte ongi prestatua baitzen eta Iruñeko aferez ere interesa agertzen baitzuen. Arrazoi horien-gatik edo, Iruñeko zinegotzia izatera arin iritsi zen. Aurrena, 1868ko irailean, «Nafarroako Gobernuko Goi Elkarteak» hautaturik; eta urtearen bukaeran, hauteskondeetan berrautatua izan zen. Horrela hasi zuen arlo publikoari eskainiko zion egiteko oparoa. Zinegotzigoa duintasun handiz bete zuen. Beti jarrera ona zuenez eta iritzietan ere neurritsua zenez, bazekien,

eztabaidek gaiztotzera jotzen zutenean, zuhurtasuna eta zentzu ona ezartzen eta bakea bilatzen. Idazle on bezala agertu zen gazterik, eta baliatzen zuen trebezia hori Udaleko arazoak gizartean azaltzeko. Giza giroko artikulua izaten ziren batzuetan, baina kontakizunak eta olerkiak ere idazten zituen, kritika ironia bigun eta umoresuz jantziz. Eta oihartzuna izaten zuten, Iruñean ez ezik Nafarroan eta, zenbaite-tan, Estatuan ere zabaltzen zirelarik. 1880-ko hamarkadan Iruñeko udalbatza aski banatua zegoen: liberalak, errepublikanoak, ezkertiarak, euskara eta Euskal Herriaren aldekoak, azken hauek «euskaroak» deituak, denek zuten ordezkaritza, eta bilerak hagitz liskartsuak eta tentsio handikoak izan ohi ziren. Iturraldek bazekien ika-miken gaintik egoten, denak errespetatuz eta, erran bezala, bere burutapen eramangarriekin bazterrak leuntzen.

Garaiko kroniken arabera, ekarri oneko lana egin zuen. Ongintza, Ogasuna, Musika eta Marrazkia batzordeetako kidea izan zen eta iniziatiba bikainak hartu zituen, beti ere irizpide zuhurrez eta bere herri eta lurrari zien maitasunak eraginez. Bes-



Iturraldek foruen alde gogor egin zuen

te kargu batzuk ere izan zituen, hala nola, Iruñearen ur-horniketa oparoa bultzatzeko batzordeko kide izendatu zuten, eta «Irakaskuntza Publikoko Batzorde»ko partaide ere bai, nondik herritarren ontasuna defendatzen saiatzen zen. Batzuetan, Iruñeaz gaindi, nafar guztien alde ere ateratzen zen, esaterako ausarki aurpegia emanaz nafar udalak maisuak izendatzeko zuten eskubidea galtzeko zorian aurkitu zirenean.



Bere garaiarekin konprometitua

Euskarazko Elkargoaren domina,
Iturralde diseinatua

Azken Karlistadaren ondorioz, 1876. urtean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak beren foruak galdu zituzten. Horrek ez zuen Nafarroako bizitzan eragin berezirik izan, *Lege Paktatuarekin* jarraitzen baitzuen, baina beste lurralde euskaldunekin solidaritate handia garatu zen. Foruak ikono bat bezala bihurtu ziren eta hitz horrek eduki zabala hartzen zuen, askatasunaren ideia bera ere barruan sartzen zelarik. Foruen kontzeptuan euskara eta enda jasotzen ziren eta, Nafarroan bereziki, XVI. mendean galdu zen Erresuma zaharra, garai batean euskal lurralde guztiak bildu zituena, suharki errebindikatzen zen. Juan Iturralde nabarmendu zen bereziki guzti horien alde

eta bat egiten zuen herriaren sentimenduekin eta luma eta ahalegina eskubide zapalduen alde jarri zituen goraki.

NAFARROAKO EUSKARAZKO ELKARGOEA

Giro hori zela eta, euskara eta honek eragiten duen atxikimendua herrian suspertu eta zabaltzeko biderik hoberena erakundeak sortuz ikusten zuen. Baina laguntza baino gehiago eragozpen ez ote ziren izanen sumatuz, Nafarroa eta beste euskal lurraldeak hartuko zituen herri elkarre bat sortzea zela irtenbiderik hoberena iruditu zitzaion, eta lagun min zuen Arturo Campion ere bat zetorren berarekin.

Reunidos en casa de D^o Juan Iturralde y Saut los
 Sres. D^o Esteban Olanos, D^o Nicasio Landaa, D^o Fe-
 renis de Ansolunga, D^o Amiste Lagarde, D^o Juan
 Josi Herran, D^o Juan Iturralde y Saut, el Sr.
 Marquis de Guivior, D^o Joaquin Herran, D^o Ni-
 cano Espor, D^o Antero Forroqui, D^o Fermín Jira-
 ra, D^o Hermilio Olvera y D^o Esteban Campion con
 el objeto de fundar una sociedad que velase por la
 conservacion de la lengua e historia vascos-navarras
 señalaronle al Sr. Olanos espontaneamente el lugar
 de la presidencia, y dicho Sr. despues de ocuparla dió
 las gracias á la reunion por el honor que le dispen-
 saba.

Acto continuo D^o Juan Iturralde y Saut expuso
 el objeto que allí los congregaba y el que habia de
 llenar la sociedad, encareciendo su gran importan-
 cia, y estudiandose en algunas consideraciones sobre
 la necesidad de que se establezca inmediatamente y
 respecto de los grandes bienes que puede procurar
 un día al país.

El Sr. Landaa se ocupó del nombre que debía
 darse á la Sociedad y propuso que este fuese el
 de Academia Etnografica de Navarra, denominacion
 que fué adoptada por los Sres. reunidos.

El Sr. Campion hizo presente que la acadé-
 mia podia contar con el valioso apoyo del Sr.
 Estier, Diputado Jorral y Provincial de Navarra
 para el mejor éxito de los fines apetecidos por la
 Sociedad, declarando en nombre del citado Sr. que
 su posicion oficial le impedía formar parte de
 aquella: el ofrecimiento del Sr. Estier fué auto-

Nafarroako Euskarazko Elkargoaren
 lehenengo akta

Idea mamitzen nafar euskaltzaleen tal-
 detxo bat aritu zen, eta Araba, Gipuzkoa
 eta Bizkaia lurraldeetara deialdia hedatuz
 joateko asmoa zuten. Xedea eta ekintzak
 Iturralde ezarri zituen: Euskal Herriko li-
 teraturazko lan hoberenak euskarara itzu-
 li; abesti eta herri kultura galdu baino
 lehen bildu; euskal kantutegia osatu; lite-
 ratura lehiaketak antolatu; euskal dantzak
 eta jokoak indartu.



Lagun mina izan zuen Arturo Campioneekin
 batera Euskarazko Elkargoa sortu zuen

Zenbait arazo gainditu ondoren, 1877ko
 urriaren 23an, Iturralde hamahiru lagun
 bildu zituen bere etxean. Denak ezagunak
 ziren eta gizartean eragina zutenak. Batzar
 hartan ezarri ziren Asociación Euskara de
 Navarra-Nafarroako Euskarazko Elkar-
 goa ospetsuaren lehenengo zimentarriak.
 Handik gutxira, urte bereko azaroaren
 7an, estatutuak eta araudia onartu zituz-
 ten eta hurrengo urteko Errege Egunean



Euskarazko Elkargoaren zenbait batzar
Kontuen Ganbaran egin ziren

publikoan aurkeztu zen bere Zuzendaritza-batzordearekin batera. Lehendakari Esteban Obanos izan zen eta Juan Iturralde, idazkari. Horrela zioten: «Gizartearen xedea da: hizkuntza (euskara), eta euskal eta nafar literatura eta historia gorde eta zabaldu; legedia aztertu eta herriaren ongi izate morala eta materiala lortzeko beharrezkoa den bidea zabaldu». Urte betean 371 bazkidek osatzen zuten Elkar-

goa, ohorezko zenbait kide aipagarri ere zituelarik: Sagarminaga, Moraza, Manterola, Iparragirre, Becerro de Bengoa, Bonaparte Printzea eta Vinson, besteak beste. Elkartearen zenbait batzar Nafarroako Kontuen Ganbaran egin zituzten, baina gehienak Elkargoaren egoitzan egiten ziren, Iruñeko Pozoblanco kaleko 19an.

Elkargo honi zor zaio «Zazpiak bat» le-maren sorketa; aurreko «Iruak-bat» eta «Laurak-bat», biak ere murriztuz gelditzen ziren ustez, Elkargoaren armarri berria sortu zuten. Diseinua Juan Iturralderena izan zen: zazpi mendiren gainean Gernikako Arbola, honen enborrean Nafarroako armarrria bere koroarekin eta arbola gainean gurutzua. Ideiak zabaltzeko eta hedabideetan agertzeko egunkari eta aldizkari propioak izan zituen. Egunkariak: *El Arga*; honen ondoren *Lau-Buru*, *Campion* izan zelarik zuzendaria eta, azkenik, *El Aralar*. Aldizkarietan, aipagarriak dira *La Ilustración de Navarra*, hamaboskaria, *Revista del Antiguo Reino de Navarra*, hau ere Campionez zuzendua, eta aurre-rago ikusiko dugun *Revista Euskara*. Denetan idatzi zuen Iturraldek naroki.

Euskarazko Elkargoak errespetu handia agertu zuen bere bazkideen ideia politikoekin. Izan ere, araudian ez zen horrelako baldintzarik ezartzen. Denek euskara defenditzen zuten eta gehienek Euskal Herria ere bai. Gizarte mailan, ordea, Elkargoaren helburuak eta bazkideenak gero eta batua-goak ikusten ziren eta irudi hori emateko interesatuenak alderdi politikoak eurak izan ziren. Lehenengo pausoa batzarkideei *éuskaros* deitzen hastea izan zen, eta hedadura handia hartu zuen izen horrek esparru eta maila guztietan, *Euskarianosekin* batera. Dena den, izen horrek ez bide zuen adierazpen ezezkorrik bereganatu, Elkargoko kideek ere ez baitzioten muzinik egin izen hori euren artean erabiltzeari.

Beste urrats garrantzitsu eta esanguratsu bat 1881. urtean markatu zuten *Euskaros*-ek Iruñeko udal hauteskundeetan parte hartu eta udal politikan sartuz. Urte horretan eta 1883an, bietan, Iruñeko udalak zituen hamabi zinegotzietatik zortzi atera zituzten, gaineko laurak liberal, errepublikano eta monarkikoen artean banandu zirelarik. «Jaungoikoa eta Foruak» lemapean Iruñeko udalaren lehendakaritza ere lortu zu-



Beren ideiak zabaltzeko egunkari propioak izan zituzten. *El Arga* sortu zuten lehenengoa izan zen



Hurrengo egunkariak, *Lau-Buru* izenekoak, Arturo Campion izan zuen zuzendari

ten. Guzti hori indar eta arrisku handiegia zen besteen interesetarako. Etsaien kritika eta azpi-jokoa eta izen txarra ematea izan zen aurrerantzean aurkako politikak. Urduriaren urduriz, Madrildik ere kanpaina gaitza eratu zen Elkargoaren izen ona laidoztatu eta kideak ere bortxatzeko. Presioa handia izan zen eta, horren eraginez, zenbait kidek atzera egin zuen, eta poli-ki-poli-ki Elkargoa ere moteltzen joan zen, eta 1897ko ekainaren 6an, hogeitau betetzear zegoelarik, deuseztatu behar izan zuten. Dena den, Nafarroako Euskarazko Elkargoa benetan aitzindaria izan zen eta honen ideien eta eman zituen emaitzen tes-
tiguua beste lurraldeek jasoko zuten.

1879.

ELIZONDOKO BESTETAN

GARBAIT SARIA ERAMAN DUEN KANTUA

RAMON ARTOLA, DONESTIAKOAK EGINA

ALTABIZKARKO KANTUA (I)

NOR BERE ETXEAR IZAN BEDI NAGUSI.

Ojusia bai erantzun da Euskaldunen mendiyetan!
Etcheke-jauna zut-zutik zeguen bere atzetan;
Aditu du ta esan du: ¿Zer da gure lur onetan?
Eta altxarik elakurra, lotan zeguen onetan,
Nastu du Altabizkarko inguru dena zaunketan.

Ibañetako mendizkan arbast-otz bat da sentitzen;
Arkatzak ezker-eskuin joaz dator ugazitzen;
Armada batek dakarren burrundara da urbiltzen.
Gureak mendi puntetan orain ari dira biltzen,
Eta etcheke-jauna ez da dardaz zorroztez gelditzen.

(I) Habildaseo publicado anteriormente en la REVISTA la version castellana del canto de Altabizkar imprimimos la de esta poesia que no es sino la traduccion del mismo canto al dialecto guipuzcoano.

Euskararen bultzagile eta eragile

Euskal Jaietan saritutako olerkia


EUSKALTZALEA

Ez dakigu Juan Iturraldek euskaraz ze-kienik, baina bere lanetan sartu zituen euskal hitzek eta euskararekiko agertzen duen atxikimenduak gutxienez euskara ulertzeko adina izan ote zen pentsaraz-ten dute. Nolanahi ere, euskarari buruz idatzi zituen idazkiak izugarri ederrak dira eta indar handiz jaso zuen euskararen nortasuna eta balioa. Euskararen apologista bizia izan zen eta zientziaz haratago eramaten zuen euskararen interesea. Nafarren euskalduntasunaren defendatzaile sutua zen eta euskara Nafarroako lehen eta bertako hizkuntza zela zioen. Hala ere, ardura handia zuen eus-

kara galtzeko arriskuan ikusten zuelako. Iturraldek euskararekin lotzen zuen herriaren izatea: arraza, euskaldunen moralitasuna, errespetua, askatasuna; hitz batez, euskaldunen ezaugarriak euskarari itsatsirik agertzen zitzaizkion eta euskara gordez gero, euskal sena eta nortasuna ere etorkizunerako bermatuak ikusten zituen. Egiaz, beldur zen eta ez zitzaion arrazoirik falta horretarako. Bonaparte printzeak urte haietan egin zuen euskararen mapan agerian jarri zuen, Nafarroan batez ere, euskarak hartzen zuen lurralde zati handi batean ordurako galzorian zegoela. Hortik zetorkion Iturralderi, beste euskaltzaleei bezala, barru-barruko atsekabea, baina itxaropenari eutsiz


ezein aieru gaiztoren gaindi, honela idazten zuen: «Aurrera, oraino garaiz gaude eta; aurrera. Gure Euskal Herri maitean amek euskal kanta goxoak haurtxoei xuxurlatzen dieten artean; gure familia patriarkaletan aitatxi zaharrak bilobatxoei mendiko elezaharrak pasatzen dizkien artean; gure oihan berdeen oihartzunek erromatarrek, arabiarrek, frankoek eta Napoleonen legioek entzun zuten betiko euskal irrintzia, eta egun ere alaiki eta oldartsu entzuten dena, errepikatzen duteneino, aberriaren sentipena ez da hila aurkituko eta gure herri zindoa ere ez da gainbehera joango» (gure itzulpena).

Iturraldereen ekina euskararen alde ez zen hitz eta idazkietara mugatzen, hori gutxi ez izanik ere. Berak lortu zuen, Euskarazko Elkargoaren babesarekin, Iruñeko Udalak 1882an literatura lehiaketa bat antolatzea euskarazko lanak barne. Hauetan sartzen ziren Nafarroako historian edo bere tradizioetan oinarritutako elezaharra; Xabier deunaren bizitza, eginkizunak eta heriotza gaitzat harturiko olerkia; eta Nafarroako erakunde zaharren inguruko idazkia. Lehiaketa ga-



Felipe Arrese Beitiaren olerki ospetsua, «Ama euskerari azken agurrak», Elizondon Euskarazko Elkargoak antolatutako literatur lehiaketan saritua izan zen

nora handiz eraman zen eta euskaraz aurkezten ziren lanak epaitzeko goi-mailako epai-mahaia ezarri zen: Bruno Echenique, Arturo Campion eta Damaso Legaz. Sari banaketarako antolatu zen programan Santa Cecilia Orkestrak, Iruñeko Orfeoia, Julian Gayarrek eta Pablo Sarasatek parte hartu zuten. Ez dago zer esanik partaide horiekin lehiaketa zein ospe handiko ekintza gertatu zen.



Bide beretik, Euskarazko Elkargoa d'Abbadie jaunarekin harremanetan jarri zen eta, Euskal Jaietan parte hartuz, Elizondon euskararen aldeko olerkiaren lehenengo txapelketa antolatu zen. Felipe Arrese Beitiak irabazi zuen hain ezaguna den «Ama Euskerari azken agurrak» olerkiarekin. Lore-jokoez gain, literatur lehiaketak eta sariketak antolatzen zituzten eta bertsolaritza zabaldu ere bai eta, oro har, euskararen defentsa sendoa egiten zuten nonahi. Ekintzarik aipagarrienak, ziurrenez, euskararen irakaskuntzari zegozkionak lirateke. Alde batetik, eskoletan haurrek euskaraz egiteagatik jasotzen zituzten zigorren aurka ozenki protestatu zuten. Areago, eskola publikoetan euskara erakustearen alde agertu ziren eta hori lortzeko ahalegindu ziren; eta euskal katedra bat sortzen ere saiatu ziren. Horren lekuko da, esaterako, 1885eko uztailaren 20an egindako Batzar Nagusiaren aktan irakur daitekeenez, Madrilgo Gobernuko Sustapen Ministroari luzatzen dioten erregua, euskararen irakaskuntza eta erabilera gorde eta bultzatzeko ahalegina eskatuz.


REVISTA EUSKARA

Euskarazko Elkargoaren helburu nagusia euskara bultzatzea eta indartzea zuen eta hori egokiago lortzeko 1878an *Revista Euskara* sortu zuen. Lehenengo zuzendaria Nicasio Landa, sendagile eta historiagile ospetsua, izan zen, eta Juan Iturraldek jarraitu zion erantzukizun horretan. Nafarrez gain, garaiko idazlerik entzutetsuenek idazten zuten: Duvoisin, Becerro de Bengoa, Vicente Arana, Vinson, eta zerrenda luze bat aipa daiteke; Bonapartek berak ere aldizkari horretan argitaratu zituen azkenetariko lanak Nafarroako zenbait herritako hizkereri buruz. Ordurako hasiak zeuden euskararen grafiari buruzko eztabaidak biltzeko lekua izan zen. Lore-jokoetan saritutako olerkiak argitaratzen zituen eta aldizkariaren inguruan hainbat kultur ekitaldi antolatu ziren, adibide baterako, Arrese Beitiari urrezko domina ematearena.

Baina aurkakoen indarrak batetik eta aldekoen txepelkeria bestetik, ez baitzen behar beste kolaboratzen, hain fruitu onak ematen zituen komunikabidea

bost urteren buruan, 1883an, itxi egin zen. Benetan tamalgarria izan zen euskal hizkuntzari eskainitako lehenengo eta hain maila jaso lortu zuen argitalpenak, beste lurraldeetan etorriko zirenei bidea irekiko zienak, horrela amaitu beharra. Claude Larrondek zioen bezala «*Revista Euskara*-k bakarrik izan zuen zentzu euskaltzale nabarmengarririk, adiera aber tzale ageriarekin» (gure itzulpena).

Euskararen inguruan, Iturralderen beste lan batzuk ere aipa daitezke. Esaterako, Iruñea hitzaren etimologiaz eta hiriak izan zituen beste izenez idatzi zuen. Lan arkeologikoen aurkikuntza guztiei euskal izena ematen zien eta esanahia finkatzeko erabiltzen zuen iturria Larramendiren hiztegia izaten zen. Erdi Aroko dokumentazioan, kartulario eta eskuizkribuetan, ordura arte inork ikusi eta jaso gabe zeuden euskal hitzak, antroponimo eta



Revista Euskara, euskarari zuzendutako lehenengo aldizkaria

toponimoak, bildu zituen eta Campioni pasatu zizkion honek azter zitzan.

Bere literatur lan ugaria gaztelaniaz idatzia badago ere, hona han-hemenka agertzen diren euskarazko zenbait hitz: irrintzi, lamiña, azkona, batzarre, mutil, aitona, makila, sorgiña eta abar.



Langile handia

Iturralde idazle oparoak genero ezberdinetan idatzi zuen

Juan Iturralderen lan orduak ez omen zuten ez etenik ez mugarik, atsedetik hartu gabe egiten baitzuen lan. Gainbegirada bat haren lanei aski da zein ugariak eta askotarikoak diren ohartzeko. Izan zuen formazio aberatsak lagundu zion, noski, bere ekinbidea esparru ezberdinetan gauzatu ahal izateko. Giza zientzietako pertsona zenez, arlo horretan eman zituen emaitzarik aberatsenak. Literaturan, sormen ugariak eta estiloz erraza eta goxoa izan zen. Arte plastikoen mundua oso gogoko izan zuen nahiz egile bezala, nahiz kritikari zola bezala ere. Arturo Campionek ehun eta hirurogei orrialdeko artikulua luze eta xarmanta argitaratu zuen bera hil ondoren; horietatik, hogeita

hamabost Iturralde egindako lanen zerrendak hartzen ditu, hamahiru ataletan banaturik. Esan daiteke, beraz, lanari eskainia izan zela haren bizitza.

HISTORIALARIA ETA ARKEOLOGOA

Ez zen historialari izan lanbidez, baina hagitik historia zalea izan zen, bere lurraldekoarena batez ere. Arturo Campionen iritziz hain ongi ezagutzen zuen Nafarroako historia, ezen XVII. mendeko Aita Moret jesuitaren garaitik ez omen zuen inork horrenbeste menderatzen. Iturralde ez zuen Nafarroako historiarik egiteko asmorik, baina Iruñeko historia eta monumen-



Iturralde, Euskal Herrian trikuharririk ez zegoela uste zenean, hainbat aurkitu zituen


tuen gida sakon eta interesgarri bat idatzi zuen, bukatu gabe gelditu zena. Bestalde, ikerketak bide berritak eraman zituen eta, zenbait lan monografikoren bitartez, Nafarroako historiari, Erdi Arokoari batez ere, ekarri berria eta garrantzizkoa gehitu zion, beti zehaztasuna eta bermea eskainiz. Dударik gabe, ongi etorri zitzaizkion hartu zuen formazio sakona eta Frantzia ikasten eman zituen urteak hango kultura, artea eta historia ezagutzen, Nafarroako historian ere aztarna nabarmenak utzi zituztenak, hain zuzen.

Badu Iturralde beste alderdi bat, arkeologoarena, hau ere eragin handikoa izan zena bere bizitzan. Aitzindaria izan zen, Nafarroako historiaurrearen ikerketa egiten bera izan baitzen lehenengoa. Egin zituen



Arkeologia lanetan baseritarren laguntza izaten zuen

ikerketak berritzaileak izan ziren, arkeologia historiaurrekoa eta historikoa, artistikoa, erlijiosoa eta zibila bilduz. Bere lanak eredugarritzat hartuak izan dira eta bere izena historiaurreko arkeologiako ikaskeekin loturik doa. Nafarroan eta Euskal Herri osoan —Arabako salbuespen txiki bat izan ezik— batere trikuharririk ez zegoela uste zenean, berak ezagutzera eman zituen lehenengoak. Aralar mendilerroko monumentu megalitikoaren aurkikuntza berri 1894. urtean idazten hasi zen artikuluen bitartez eman zuen. Hamahirutik



Aurkikuntzen deskribapen zehatzak egiten zituen, aitzindaria ere izan zelarik

gora trikuharri deskribatu eta marrazten ditu: Aranzadiako, Otso-pasageko, Zubeintako, Urdenasko, Armendiako, etab., eta denek alboan «trego-arriya» hitza daramate. Beste aurkikuntza aunitz eta mota ezberdinetakoak ere egin zituen: historiaurreko abere eta gizaki hondakinak, harritzko aizkorak, iskiluak eta beste zenbait lanabes. Bazuen, arlo hau garatuz, euskaldunen eta Euskal Herriaren jatorriarekin lotzeko asmo handiren bat, baina heriotzak aurrena hartu zion lan horri.

Inskripzioak irakurtzen ere trebea zen, eta erromatarren aztarnak sailkatzen, garaiko ikertzaileen parera eta gorago ere iristen zelarik. Beste aroei dagokienez,

batez ere Erdi Aroari, hainbat lan eskaini zizkien erlijioaren historiari eta Nafarroako monumentu eta eraikinei. Bere lan aipatuena eta borobilena Erriberriko Errege-Gazteluaz argitaratu zuen lana izan zen. Azkenik, aipatzerik ere ez dago zenbat pertsonaiaren bizitzak aztertu zituen eta Nafarroako historiaren inguruko zenbat gertakizun ikertu.

ARTE EDERRAK

Gaztaroan marrazkirako agertu zuen dohaina bizitza guztian landu eta aprobetxatu zuen, idatzi bezain aisa eta usu marraztu eta margotzen baitzuen, utzi izan duen lana hagitz handia delarik. Hala ere, ezin daiteke esan pintorea izan zenik, bere lanaren kalitatea eta maila garaiko artista eta kritiko handiaren ahotan eta luman ibili bazen ere. Zenbaitetan familiakoentzat pintatzen zuen eta inoiz lagunentzat, baina gehienbat beretzat, bere gustua asetzeko eta bere atseginerako batez ere. Pintatzen zituen koadroekin zuen jokaera adierazgarria da, pintatzen zuena pilaturik eta ahantzirik bertan behera uzten baitzuen, eta aunitzetan pintatua-


ren gainean beste koadro bat egiten zuen jendearen protesta eta kexei kasurik egin gabe. Erakusketarik ez zuen sekula egin: inolaz ere bere izaeraren kontra zihoan hori. Hil ondoren, Campionek dioenez, haren etxean 900 akuarela eta 150 bat olio-pintura gordetzen ziren. Gehienak Euskal Herrian zehar egiten zituen bi-daietan jasotzen zituen paisaiak ziren.

Dena den, bere zaletasunik behinena marrazketa izan zen, eta arlo horretan egin zuen lana bere osotasunean ezagutzerik ez dago, sakabanatuegia baitago: paper zatitan, txarteletan, egunkari orritan, liburuetan, albumetan, hitz batez, edonon. Beti berekin zeramatzan lanabesak eta zernahi marrazten zuen miresgarri. Naturaletik edo memorian hartuta, gauza solteak, landareak, abereak, paisaiak, pertsonen erretratuak edo gorputzaren zatiak, eszenak, edozein forma berdin zitzaion, beti bizitza eta mugimendua egokiro jasoz.

Bere idazki gehienek, literaturakoek zein historikoek, ilustrazio bat —marrazkia edo akuarela— daramate azalean, eta bakanen batek baita orri bakoitzean ere. Nafarroako artxiiboetatik antzinako 600 seilu-



Erriberriko Errege-Gazteluari buruzko lana eredugarria izan zen



Eskaini zuen informazioari esker, berregin ahal izan zen Errege-Gaztelua



Seiluak akuaforte eta xilografia bitartez bikain egiten zituen

ren bilduma handi bat burutu zuen, garai haietako akuaforteen erara eta metodo xilografiko berdinez eginak seilu guztiak. Erabateko onespena lortu zuen lan honek, baina lanaren handi eta xeheak aunitz kaltetu zion bista.

Atal honekin bukatzeko, bera horrelakoen aurkakoa izan arren, jaso zituen agiriak agertzen dute izan zuen errekonozimendua: San Fernandoren Historiako akademiakoa eta Arte Ederretako errege akademiako urgazlea izendatu zuten; 1886tik aurrera Eraikin Historiko eta Artistikoen Batzordeko idazkaria eta lehendakariordea izan zen; eta, azkenik, Etnografia, Historia, Artea eta Legislazioa saileko lehendakaria.

IDAZLEA

Ikusi dugu zein polifazetikoa izan zen Iturralde; hala ere, idazle bezala pasatu da historiara nagusiki eta hortik datorkio hil ondoren izan duen entzute eta ospea. Mota guztietariko hainbat artikulu idatzi zituen garaiko egunkari eta aldizkarietan. Esan den bezala, estilo arinekoa zen, erraztasunez idazten zuena. Ongi menderatzen zuen idatz teknika, horri ez bazion jaramon handirik egiten ere, bere eskuizkribuek oso ukitu gutxi baitituzte. Edukiari begiratzen zion batez ere, zehaztasunari, ideiak ulergarri aditzera emateari, sentimenduak ongi eta sinesgarritasunez eratzeari ematen zizkien garrantzia eta ez zitzaion hainbeste ardua formaren edertasun soila.

Hil ondoren, bilduma bat argitaratu zen bi liburukitan, bata Arturo Campion eta bestea Carmelo Echegaray idazle ospetsuek idatzitako sarreraz hornitua. Dena den, lan asko argitaratu gabe gelditu ziren. Literatur lanei dagokienez, mota ezberdinetako generoez baliatu zen, beti ere gaien arabera. Elezaharrak eta kontakizunak gehienbat Nafarroako historiako pasarteetan oinarrituak: «Miluze zubia»,

Segunda después de las comunicaciones de los señores
D. Berna bideanque, alfo, estatua y beldade y
D. J. Vences Boragistari en las que con los
quienes a la memoria por su comportamiento de
dones honorarios, y se ofrece con entusiasmo a
la magna, los cuales fueron recibidos con
triste y satisfacción.

Después el Batavore recien un informe de
respeto y simpatía a la memoria del distinguido
de Vences Boragistari, de una Boragistari, que
de acuerdo, se propusieron del Sr. Boragistari,
que se nombre sea escrito entre los de
los donos honorarios.

A este continuo el Sr. Boragistari el título
de fundador de la Asociación, el cual fue aprobado
y se habiendo más asuntos de que tratar,
se dio por terminado el Batavore, que se
as esta Acta que firman el Presidente y el
Secretario.

Juan Ferralde y Surt

Batavore del 11 de Julio de 1878.

En la ciudad de Bayona el día de Julio de mil ochocientos
setenta y ocho, cuando el Batavore, bajo la presidencia de D. Ferralde
Surt, se le dio por terminado, se leyó el acta del anterior
Batavore.

A este continuo y en cumplimiento de las disposiciones reglamentarias
que en el primer Batavore se le dio por terminado, se celebró una
Asamblea en la cual se acordó y pagaron de la Asociación.

Después de haberse leído el acta del anterior Batavore, se
procedió al nombramiento de los nuevos señores, acordando de
poner los señores Boragistari y Boragistari para ser el Presidente y el



Iturralde alde guztietatik gizaseme erakargarria zen

Sinadura idazkera bezalakoa zuen,
garbia eta ulerterraza

«Leireko Birila Sainduaren elezaharra»,
«Irantzuko organista eroa», «Legiako Juan
Fermin» eta abar luze bat. Beste batzue-
tan kontakizun lirikoak, sentimendu erro-
mantikoz kutsatuak eta iraganeko erre-
sumaren handitasun galduaren etsipenez
beteak. Hauetan ere zenbait lanen izenbu-
ruak adierazgarriak gertatzen dira: «Orrea-
gan gau bat», «Euskal Herriko mendien
haize leuna», «Nafarroako izpiritu zaha-
rra». Beste batzuetan, euskaldunen kon-

tzientzia ernatu nahiz, simbolismoz balia-
tzen da, «Errota-zuriko urretxindorra»
ezagunena delarik. Hunkigarria da az-
ken urteetan bere semeentzat idatzi zuen
ipuinez eta elezaharrez osatutako lana,
non Iturralderen izatea eta barneko sen-
timendua azaltzen duen: «Izan bitez le-
rro hauek nire arimaren erretratua neu-
rri batean, eta haurrak zinatenean entzun
zenizkidaten elezahar eta ipuinen oroi-
tzapena; Jainkoaz, familiaz eta gure Abe-
rriaz erran nizkizuenak batez ere, nik neu-
re ariman gurtu ditudan horiek, zuek ere
zuenean gordeko dituzuen itxaropenez,
bizitza guztiz hits honetako bidaia egiten
duzuen bitartean» (itzulpena gurea).



EL SEÑOR

D. Juan Iturralde y Suit

Concejal que fué de este Excmo. Ayuntamiento,
Vicepresidente de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos de Navarra,
Asistente correspondiente de las Reales de la Historia y de San Fernando
ha fallecido el día 17 del corriente, en la ciudad de Barcelona,
después de recibir los Santos Sacramentos y la bendición de Su Santidad

— R. I. P. —

Su desconsolada viuda D.^a Adolaida Ribed y Alzugaray,
sus hijos doña María del Carmen, doña Matilde, doña Elena
(Religiosa del Sagrado Corazón) y D. Javier María,
hermanos políticos, primos y demás parientes é interesados

Suplican á sus amigos y conocidos se sirvan tenerle presente en sus
oraciones y asistir á la conducción del cadáver: que tendrá lugar hoy viernes
día 20, á las doce y media, desde la estación del ferrocarril al cementerio
de esta ciudad. El día 21 saldrá á las once y media para la estación,
desde el Puzo de Sarriena, 38, y se depositará en el cementerio.

Se se reparten esquelas. Pamplona 20 de Agosto de 1909.

Oroz gain, gizona

Azken urteak Bartzelonan egin zituen
eta han hil zen

ERRETRATU LABURRA

Hainbat alderditatik ageri izan da Iturralderen nortasuna eta izatea bere bizitzako ekintzak azaltzean. Oroz gain, pertsona atsegina, zintzoa eta egiazalea zen; alabaina, bazekien nafar jatorren karakterra erakusten horrela behar zenean. Kristau zindoa, Jainkoarengan konfiantza handia zuen eta eskuzabala izaten zen jendea laguntzen. Batez ere, denek zioten bezala, gizon apa-
la zen, nahi izan bazuen goreneko postu-
tara irits zitekeen arren; ospeaz eta izenaz
axola gutxi egiten zuen, beti bigarren mailan gelditzea gustukoago izaten zuen, eta bere lanei garrantzia ematen ibiltzea ere ez zitzaion atsegin. Fisikoki ere erakargarria

zen eta, berak esaten zuenez, herri minak eraginda ilea behar baino lehenago zuritu omen zitzaion. Eta arima minduta gelditu ere bai. Gizartean zuen konfiantza galduz joan zen eta ideien defentsan aski baka-
rrik gelditu zen. Berak nahi zukeen euskal gizartea, izotza beroarekin bezala, urtzen zihola ikusten zuen, horregatik agertzen da sentibera azken urteetan, bizitza osoan eutsi zituen ideien hilezkortasunean sines-
ten jarraitu bazuen ere.

Hala ere, familia zen bere baloreen artean aurrenetarikoa, eta ez zuen zalantza txikienik izan etxekoen ezbehar eta eritasunen aurrean bere zaletasunen eta haien beharrezan artean hautaketa egin behar



San Nikolas elizan izan ziren hil-elizkizunak



Iruñeko kanposatuan dago hilobiratua



Iruñeko kale batek bere izena darama

izan zuenean: hasitako hainbat idazlan bukatu gabe geldituko ziren eta egitasmo handi itxaropentsu batzuek ere ez zuten aurrera egiteko aukerarik izango. Gaztetan, aitaren iradokizun biguna aski izan zuen foruen aldeko batzar garrantzitsu bat uzteko, «familiak ere bere foruak ditu» esanez. Izan ere, bere munduaren bihotza, emaztea, Adelaida Ribed eta Alzugarai, eta azkenera arte lagundu zuten bere semea eta hiru alabak izan ziren.

AZKENA

Juan Iturrালের azken urteak ez ziren hain atseginak izan. Familiaren ezbeharrak zirela eta, semeren baten osasunagatik, hain maitea zuen Iruñea utzi behar izan zuen Bartzelonara joateko, eta han eman zituen azken hamabi urteak. Horrela bizi-

D. JUAN ITURRALDE Y SUIT

Después que en el mes de la revolución se acordó todo el pueblo, y especialmente el de Pampelona, que se le diese un monumento que le sirviera de recuerdo y estímulo de su memoria, y que se le colocara en el punto más conveniente.


ANUNCIANDO.

El 17 de Agosto de 1909 falleció en Barcelona D. Juan Iturralde y Suit. Los periódicos pamploñeses, con la delicada informatica que la premura del tiempo, en estos casos, no suele permitir se entienda, dieron lo que debían ó recordaban acerca de tan querido convecino, manifestándole viva simpatía, y el Ayuntamiento de Pampelona, de quien hace años fue concejal el Sr. Iturralde, consagró en acto de sentimiento que le causó la noticia, y se hizo representar en la fregada del cadáver y en las honras fúnebres. No faltaron, según se ve, esos signos externos que denotan, además de la estimación á la persona, el convencimiento de que ésta ocupaba por sus méritos en la jerarquía social, un puesto al donde no llega el común de las gentes. En Pampelona y en este antiguo Reino renació de súbito el recuerdo del hombre que fué durante su vida, á modo de ara donde ardía perennemente el más puro amor á la patria.

Actitud consoladora y reconfortante. Las circunstancias habrán laburado para que la imagen de D. Juan Iturralde se veiera y palpociera en la mente de sus convecinianos. Por atender á la salud de una persona queridísima se expusió, repetidas desgracias de familia lo cercenaron las expansiones de la vida social, reduciéndola á los círculos más íntimos de parientes y amigos; el derrumbó de los acontecimientos, tan diversos del que se habrían deseado, le persuadió á abstenerse de intervenir en la vida pública; de esta manera fueron transcurriendo los últimos años del Sr. Iturralde.... La opinión dominante le miraba como á hombre consagrado exclusivamente á los suyos, limitado el mundo de sus afectos por las piedras del hogar, agobiado bajo el pesimismo de los discursos políticos, indiferente, si no hostil, á todo conato de resurgimiento.... La opinión ostaba el pesimismo, mas no entendía su calidad ni su temple de pesimismo "héroeico", no veía al pesimista que no rinde la espada ante los sucesos adversos; el pesimista que ostenta el magnífico lema de "Quid meum", al pesimista ávido de desmentirse á sí mismo, fijos los ojos en los movimientos de Navarra para correr á ella y abrazarse con ella, apenas se inspirase en los altos ideales de su Historia, desgarrando el sudario tejido por atrevidos pasiones de bandería, como corrió y se aborazó cuando la gran Manifestación católica contra la ley de Asociaciones; ni tampoco la opinión veía el incesante trabajar del artista, del erudito, del literato que con pluma, lápices y pinceles erigía cotidianamente su monumento de amor á la Patria.

Dadas estas circunstancias de aislamiento, aislamiento y silencio, no habría motivo de sorpresa por que sus paisanos hubiesen perdido el recuerdo del Sr. Iturralde; y le hubiesen olvidado, sin duda, de pertenecer el Sr. Iturralde al número de las personas de quienes cabe olvidarse una vez conocidas. Pero tantos dones intelectuales y morales, enmarcados en un carácter tan soberanamente simpático, protegen contra las injusticias de la memoria.

Mas no cabe ocultar que el actual conocimiento del señor Iturralde estaba muy desigualmente repartido: para las generaciones jóvenes no era el Sr. Iturralde una persona provista de historia propia, una biografía cuyos gestos se relacionan con determinadas sucesos; el periodista que escribió este artículo, el poeta que soñó aquella leyenda, el erudito que descubrió un arcano, el humorista que clavó su flecha de oro sobre una tendencia mala ó una actitud ridícula: era un nombre, nada más, y aun en ciertas capas de esas generaciones, ni un nombre siquiera.



Iturralde hil ondoren,
Arturo Campione
La Avalanchan idatzi
zuen haren senblantza
eta obrari buruzko lan
bikaina

ren hondakinak erosteko gogoia eta horretan ere, hil aurreko urtean, inori esan gabe, Donibane Lohizunetik Amaiurrera bidaia antolatu zuen. Gazteluarekin zer egin zitezkeen ikusi nahi zuen: «Nafarroako espiritua hezkaitzaren testigantza hurrengo belaunaldiei uzteko». Bere espiritua bai izan zela hezkaitza! Osasunak, ordea, ez zion asmoa aurrera eramateko aukerarik eman. Bihotzak eta zainek ez zioten lagundu eta inork uste baino lehen, hirurogeita bederatzita urte zituelarik, 1909ko abuztuaren 17an, zendu zen.

Iruñeko udal korporazioak jaso zuen gorpua Bartzelonatik Iruñera iritsi zenetik hilobiratu arte, eta hiletetan ere egon zen. Bietan Iruñeko jende aunitzek lagundu zion. Toki onean kokatua dagoen Iruñeko kale batek bere izena darama. Zer gutxiago eskaini Iruñeak hain seme handiari!

Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, liburuxka hau egiten jasotako laguntzagaritik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboari
- Iruñeko Udalaren Agiritegiari
- Nafarroako Errege Artxibo Nagusiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga
Argitaraldia: 1.a, 2009ko azaroa
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Rosa Miren Pagola
Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa: Grafo, S.A.
Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN: 978-84-457-2995-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2996-0
L.G.: BI - 2783-09

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco